

Fundación Basque Team Fundazioa
Makaleta etorbidea, z/g
48992 Getxo
IFK G95500559

Esp.: 03/2023

TELEBISTAZ EMITITZEKO “ERREPORTAJE PROGRAMA BATEN IKUS-ENTZUNEZKO PRODUKZIOA” ARAUTUKO DUEN ADMINISTRAZIO KLAUSULA PARTIKULARREN PLEGUAREN LABURPEN KOADROA. KONTRATUAREN EDUKIA IZANGO DA 2024ko PARISEKO JOKO OLINPIKO ETA PARALINPIKOETAN LEHIATZEKO AUKERAK DITUZTEN BASQUE TEAM-EKO KIROLARIEN ERREALITATEA ERAKUSTEA ETA HISTORIA KONTATZEA, BAITA GAI BERARI BURUZKO TELEBISTARAKO IRAGARKI BAT ETA IRRATIRAKO KUÑA BATZUK SORTZEA ERE.

1. BOTERE ADJUDIKATZAILEA: FUNDACIÓN BASQUE TEAM FUNDAZIOA				
ADMINISTRACION KONTRATATZAILEA: FUNDACIÓN BASQUE TEAM FUNDAZIOA	Kontratazio- organoa FUNDACIÓN BASQUE TEAM FUNDAZIOA	Zerbitzu sustatzailea: FUNDACIÓN BASQUE TEAM FUNDAZIOA	Espediente zenbakia	03/2023
			Kontratu mota	ZERBITZUAK
			Publizitatea:	BAI
			Publizitate mota:	www.basqueteam.eus / KONTRATATZAILEAREN PROFILA www.contratacion.euskadi.eus
			Prozedura mota	IREKIA
			Izapidetzea:	ARRUNTA
2. KONTRATUAREN XEDEA:				
Txosten honen xedea da administrazio-kontratazioa sustatzea eta ikus-entzunezko erreportajeen programa bat lizitatzea, Basque Team Fundazioaren beka jaso duten kirolariek egiten dituzten jarduerak telebistaren bidez zabaltzeko. Berezik, 2024ko Parisko Joko Olinpikoetan eta Paralinpikoetan parte hartzeko aukera duten kirolarien jarraipena egingo du erreportaje-sailak. Programa edo telesail hori sortzeko, ikus-entzunezkoen ekoizpenean espezializatutako enpresa baten laguntza behar du Fundazioak.				
Programaz gain, Fundazioak spot bat eta irrati-iragarki batzuk sortu behar ditu helburu eta oinarri berarekin egingo den publizitate-kanpainarako: Paris 2024ko Olinpiar eta Paralinpjar Jokoak.				
3. LIZITAZIORAKO OINARRIZKO AURREKONTUA ETA BALIO ZENBATETZIA				
PREZIOA: 99.800,00 €		BEZ: 20.958,00 €		GUZTIRA: 120.758,00 €
BALIO ZENBATETZIA: 99.800,00 €				
EKITALDIA: 2023				
PREZIOAK BERRIKUSTEA: EZ				
4. GAUZATZEKO EPEA				
2024ko EKAINAren 30a		LUZAPENA: EZ		
5. KONTRATAZIO-MAHAIA: BAI				
6. KONTRATISTAREN SAILKAPENA: Aukerakoa		TALDEA: T	AZPITALDEA: 1	KATEGORIA: 2

7. KAUDIMENA			
Ekonomikoa eta finantzaria: SPKL 87.1 a) art.			
Teknikoa edo profesionala: SPKL 90.1 a), i) art. eta 76.2 art.			
8. ADJUDIKATZEKO IRIZPIDEAK			
Zifren edo formulen bidez kuantifikatzeko modukoak:	- Prezioa	Haztapena:	- 10 puntu. - 41 puntu
	- Esperientzia		
Balio-iritzien bidez kuantifikatzeko modukoak :	- Eskaintza tekniko	Haztapena:	- 49 puntu.
9. GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZIAK: Berdintasun-printzipioa, hizkuntzaren, irudien eta audioen erabilera ez-sexista			
10. AURREIKUSITAKO ALDAKETAK: EZ			
11. AZPIKONTRATAZIOA: Bai, SPKL 215. artikularekin bat			

ZEHAZTAPEN ADMINISTRATIBOEN PLEGUA, ERREPORTAJE-PROGRAMA BATEN IKUS-ENTZUNEZKO EKOIZPENA KONTRATATZEKO, TELEBISTAZ EMITITZEKO. PROGRAMA HORRETAN BASQUE TEAM-EN BEKA DUTEN ETA PARIS 2024KO JOKO OLINPIKO ETA PARALINPIKOETAN LEHIATZEKO AUKERA DUTEN KIROLARIEN ERREALITATEA ERAKUSTEA ETA HISTORIA KONTATZEA IZANGO DA HELBURUA, BAITA GAI BERARI BURUZKO SPOT BAT ETA IRRATI-IRAGARKI BATZUK SORTZEA ERE

1-. XEDEA

Plegu honen xedea da administrazio-kontratazioa sustatzea eta ikus-entzunezko erreportajeen programa bat sortzea lizitatzea, Basque Team Fundazioaren beka jaso duten kirolariek egiten dituzten jarduerak telebistaren bidez zabaltzeko. Bereziki, 2024ko Parisko Joko Olinpikoetan eta Paralinpikoetan parte hartzeko aukera duten kirolarien jarraipena egingo du erreportaje-sailak. Programa edo telesail hori sortzeko, ikus-entzunezkoen ekoizpenean espezializatutako enpresa baten laguntza behar du Fundazioak.

Programaz gain, Fundazioak spot bat eta irrati-iragarki batzuk sortu behar ditu helburu eta oinarri berarekin egingo den publizitate-kanpainarako: Paris 2024ko Olinpiar eta Paralinpiar Jokoak.

Kontratuaren xedea erantsitako Preskripzio Teknikoen Pleguaren eta Klausula Administratiboen Plegu honen arabera egingo da.

2-. ARAUKETA JURIDIKOA

2.1. Plegu honetan aipatzen den kontratuak izaera administratiboa du, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 25. artikularekin bat, zeinaren bidez Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten baita

Espainiako ordenamendu juridikora. Xedapena **ZERBITZU-KONTRATU** gisa tipifikatuta dago, Lege horren 17. artikuluan.

2.2. Kontratua honako hauek arautuko dute: Klausula Administratibo Berezien Plegu honetan eta Zehaztapen Teknikoen Pleguan (aurrerantzean, ZTP) jasotako aginduak; Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (aurrerantzean, SPKL) aginduak; eta Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua, lehen aipatutako SPKLren aurka ez doan guztia; subsidiarioki, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea eta arau osagarriak; eta, osagarri gisa, Administrazio Zuzenbideko gainerako arauak, eta, halakorik ezean, aplikagarri zaizkion Zuzenbide Pribatuko arauak.

Era berean, kontratu honetako alderdiek Espainiako eta Europar Batasuneko araudia bete beharko dute, datuen babesari dagokionez.

Klausula Administratibo Berezien Plegu honek eta Zehaztapen Teknikoen Pleguak kontratu-izaera izango dute; beraz, adjudikaziodunak nahitaez bete beharko ditu, eta ez du betebehar horretatik salbuesten.

2.3. **PROZEDURA IREKIAREN** bidez adjudikatuko dira, SPKLren 131. artikuluekin bat.

2.4. SPKLren 135. artikuluan ezarritakoaren arabera, Eusko Jaurlaritzaren Irekiaren orrialdeko kontratatzailearen profilean ([URL:https://www.contratacion.euskadi.eus](https://www.contratacion.euskadi.eus)) argitaratuta, Internet bidez eskainiko da kontratu honen deialditik eratorritako kontratazioari buruzko informazio guztia, eta Fundación Basque Team Fundazioaren atarian ere eskuratu ahal izango da ([URL: https://basqueteam.eus/perfil-de-contratante /](https://basqueteam.eus/perfil-de-contratante/)).

2.5. Prozedura honen ondorioz egin beharreko jakinarazpenak bitarteko elektronikoen bidez egingo dira, eta interesdunak edo haren ordezkariak, behar bezala identifikatuta, prozeduraren edukira jo beharko du.

Halaber, komunikazioak bitarteko elektronikoen bidez egingo dira, lizitatzailleak bere eskaintza Lizitazio Elektronikoaren Atariaren bidez aurkeztean izendatutako helbide elektroniko berean.

3. LIZITAZIORAKO OINARRIZKO AURREKONTUA

3.1. Lizitaziorako oinarritzko aurrekontua 99.800,00 € €-koa izango da, gehi BEZaren % 21, hau da, 20.958,00 €, guztira 120.758,00 €. Kopuru hori da, hain zuzen ere, baldintza-plegu honen xede den kontratuaren arabera kontratazio-organoak arriskuan jar dezakeen gastuaren gehieneko muga.

Aurrekontu osoan sartuko dira kontratua egitea kargatzen duten gastu eta gainerako zerga guztiak, kontratuaren gainean eragina duten egitura-gastu orokorrak barne;

ondorioz, enpresa adjudikaziodunak ezin izango ditu Basque Team Fundazioaren aurka jasanarazi, kontratatutako aurrekontutik aparteko partida gisa.

Era berean, proposamen ekonomikoa kalkulatzeko, nahitaez hartu beharko dira kontuan indarrean dagoen araudiak lanaren, gizarte-segurantzaren, lan-baldintzen, laneko arriskuen prebentzioaren eta ingurumenaren babesaren arloan ezartzen dituen betebeharrak.

3.2 Balio Zenbatetsia

Aurreko atalean egindako kalkulua kontuan hartuta, eta SPKLren 101. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, kontratuaren balio zenbatetsia LAUROGEITA HAMAZORTZI MILA EUROTAN (99.800,00 €) zehazten da. Kontratuaren balio zenbatetsia honela banakatzen da:

Lizitazio-aurrekontua (BEZ gabe)	99.800,00 €
Luzapenak	Ez
Aldaketak	Ez
Lizitatzailleentzako primak edo ordainketak	Ez
BALIO ZENBATETSIA, GUZTIRA	99.800,00 €

4. KONTRATUAREN IRAUPEN-EPEA

Kontratuak 2024ko ekainaren 30era arte iraungo du, eskatutako pieza guztiak entregatu arte.

Fundación Basque Team Fundazioak kontratuaren gauzatzea aurreikusitako datan hasi ez bada, berehala sustatu beharko du gauzatze hori etetea, kontratuaren etendura izapidetzeko behar bezala arrazoitutako jakinarazpenaren bidez, legez aurreikusitako baldintzetan eta ondorioekin.

5. KONTRATAZIO-ORGANOA

Kontratazio-organoa, lizitazio-aurrekontua kontuan hartuta, Patronatuko idazkariak eta Fundazioko koordinatzaileak osatuko dute, eta biek batera edo elkarrekin jardungo dute.

6. KONTRATATZEKO GAITASUNA

Kontratu hau adjudikatzeko aukera izango dute Espainiako edo atzerriko pertsona natural edo juridikoek, baldin eta jarduteko gaitasun osoa badute eta SPKLren 71. artikulua 1. paragrafoan zerrendatutako kontratatzeko debekuen eraginpean ez badaude eta kaudimen ekonomiko, finantzario, tekniko edo profesionala badute. Halaber, kontratuaren xede den jarduera edo prestazioa egiteko eska daitekeen enpresa- edo lanbide-gaikuntza izan beharko dute, hala badagokio. Ondorio horietarako, SPKLren I. Liburuko II. Tituluko II. Kapituluan jasotako arauak hartuko dira kontuan.

7. ESKAINTZAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK

7.1. Balio-judizio baten arabera kuantifikatzen diren irizpideak: 49 puntu, gehienez

Dokumental-saiorako eskaintza teknikoa34 puntu, gehienez
Telebista-iragarkirako eskaintza teknikoa10 puntu, gehienez
Irrati-iragarkietarako eskaintza teknikoa.....5 puntu, gehienez

7.1.1. Enpresa lizitatzailerak **proposamen bat aurkeztu beharko du adibide praktikogisa**. Aurkezpenak ideia, tratamendua eta gidoia jaso beharko ditu, dokumentu-kapituluetako bat nola garatuko lituzkeen zehaztuz.

Adibide horrekin batera, erabiliko den lantaldearen eta materialaren zerrenda aurkeztu beharko da.

Aurkeztutako proposamena proiektuaren helburu eta balioekin, originaltasunarekin eta praktikotasunarekin bat datorren baloratuko da.

7.1.2. Enpresa lizitatzailerak **proposamen bat aurkeztu beharko du telebistako iragarkirako adibide praktikogisa**. Aurkezpenean ideia, tratamendua eta gidoia jaso beharko dira, iragarkia nola garatuko litzatekeen zehaztuz, baita claim edo esloganak ere.

Adibide horrekin batera, erabiliko den lantaldearen eta materialaren proposamena aurkeztu beharko da.

Aurkeztutako proposamena proiektuaren helburu eta balioekin, originaltasunarekin eta praktikotasunarekin bat datorren baloratuko da.

7.1.3. Enpresa lizitatzailerak **proposamen bat aurkeztu beharko du irrati-iragarkietarako adibide praktikogisa**. Aurkezpenean ideia, tratamendua eta gidoia jaso beharko dira, iragarkia nola garatuko litzatekeen zehaztuz, baita claim edo esloganak ere.

Adibide horrekin batera, erabiliko den materialaren eta lantaldearen proposamena aurkeztu beharko da.

Aurkeztutako proposamena proiektuaren helburu eta balioekin, originaltasunarekin eta praktikotasunarekin bat datorren baloratuko da.

Proposamena euskarri digitaleko PDF bakarrean aurkeztuko da.

Proposamena egiteko informazio gehigarria:

Helburuak:

- Goi-mailako euskal kirolarien egunerokotasuna eta istorioak kontatzea, 2024ko Pariseko Jokoetan lehiatzeko aukerekin.
- Goi-mailako euskal kirola ikusaraztea.

- Kirol minoritarioa ikusaraztea.
- Erreferenteak sortzea eta, horretarako, aukeratutako protagonisten historia adibide gisa jartzea.
- Basque Team marka modu erakargarri, dotore eta modernoan ikusaraztea.

Kolektibo hartzaileak:

- Euskal Autonomi Erkidegoko biztanle guztiak.

7.2. Balio-judizioen mende EZ dauden edo formulak aplikatuz soilik baloratzen diren irizpideak: 51 puntu, gehienez.

7.2.1 Kontratua gauzatzeari atxikitako taldeari buruzko esperientzia gehigarria:

Goi-mailako euskal kirolarekin lotutako ikus-entzunezko sorkuntzaren arloko esperientzia 5 puntu, kaudimen-irizpide gisa eskatzen den gutxieneko 3 urteko esperientzia baino jarduera osagarriko urte bakoitzeko. (25 puntu, gehienez)

Goi-mailako euskal emakume kirolariekin (emakumea eta kirola) lotutako ikus-entzunezko sorkuntzaren arloko esperientzia..... 2 puntu, kaudimen-irizpide gisa eskatzen den gutxieneko 2 urteko esperientzia baino jarduera osagarriko urte bakoitzeko. (12 puntu, gehienez)

Dibertsitate funtzionala duten goi-mailako euskal kirolariekin lotutako ikus-entzunezko sorkuntzaren arloko esperientzia (goi-mailako kirol egokitua)..... 2 puntu jarduera-urte bakoitzeko (4 puntu gehienez)

Aurreko esperientzia egiaztatzeko, honako hauek aurkeztu beharko dira:

7.2.1.1 Goi-mailako euskal kirolarekin zerikusia duten bideoen, sustapen-bideoen, erreportajeen, dokumentalen edo ikus-entzunezko beste edozein produkturen produkzioan, grabazioan, edizioan eta postprodukzioan egindako jardun profesional espezifikoaren zerrenda. (Zehaztu zenbat urteko esperientzia).

7.. 2.1.2 Goi-mailako euskal emakumeen kirolariekin (kirola eta emakumea) harremana duten bideoen, sustapen-bideoen, erreportajeen, dokumentalen edo ikus-entzunezko beste edozein produkturen produkzioan, grabazioan, edizioan eta postprodukzioan izandako jardun profesionalaren zerrenda. (Zehaztu zenbat urteko esperientzia).

7.2.1.3. Dibertsitate funtzionala duten euskal kirolariekin (goi-mailako kirol egokitua) zerikusia duten bideoen, sustapen-bideoen, erreportajeen, dokumentalen edo ikus-entzunezko beste edozein produkturen produkzioan, grabazioan, edizioan eta postprodukzioan izandako jardun profesionalaren zerrenda. (Zehaztu zenbat urteko esperientzia).

7.2.1. Prezioa

Atal honetan aurreikusitako gehieneko puntuazioa eskaintzarik merkeenari esleituko zaio, eta gainerako eskaintzak modu proportzionalean puntuatuko dira, formula honen arabera:

$X \text{ eskaintzaren puntuazioa} = X \text{ eskaintzaren baxu-ehunekoa} * \text{Gehieneko puntuazioa} / \text{Eskaintako baja-ehunekorik handiena}$

7.2.1.1.- Pleguaren xede den jarduera kontratatzen den prezioan gastu guztiak sartuko dira (etekin industrialia eta mota guztietako zergak), eta enpresa adjudikaziodunak ezin izango ditu jasanarazi kontratatutako aurrekontutik aparteko partida gisa.

7.2.1.2.- Prezioak barne hartuko du:

- Grabazioetara joateko desplazamendua eta dietak.
- Lana behar bezala egiteko behar diren baliabide teknikoak eta giza baliabideak.
- Gidoigintza, grabazioa, etalonajea, sonorizazioa eta postprodukzioa.
- Egin beharreko itzulpenak.
- Aurkezlea/narratzailea edo esataria, gidoiak hala eskatzen duenean.
- Karetak eta estilo grafikoa ezartzea

7.2.1.3 Ezohiko eskaintza baxuak

Ezohikoak direla hautemateko aukera ematen duten parametro objektiboak: Eskaintza anormalak edo neurrigabeak hautemateko irizpidea hainbat balorazio-irizpide kontuan hartuta finkatzen da, bai irizpide ekonomikoak, bai beste parametro objektibo batzuk; hau da, eskaintzaren puntu guztiak hartzen dira kontuan. Batez bestekoen desbideratzearen % 15eko detekzio-atalasea ezartzen da. Matematikoki, eskaintza bat anormala edo neurrigabea izango da honako hau gertatzen denean:

$$EEP > 11 - \frac{(11 - 1,15 * EEPBB)}{GPBB} * GP$$

<i>EEP</i>	Eskaintza Ekonomikoaren Puntuazioa
<i>EEPBB</i>	Eskaintza Ekonomikoaren Puntuazioa
<i>GP</i>	Gainerako Puntuazioak
<i>GPBB</i>	Gainerako Puntuazioen Batez Bestekoa

Eskaintza bakarra aurkezten bada, ezohiko edo neurriz kanpoko eskaintzak lizitazio maximoaren % 25aren gainean kalkulatu dira.

7.3. Proposamenen baremazioa azaltzeko laburpena

A) Balio-judizioaren mende EZ dauden irizpideak:	51 puntu
A.1) Eskaintza ekonomikoa Eskaintza ekonomikorik onena: gehieneko puntuazioa Eskaintza ekonomikoak baloratzeko, gehieneko puntuazioa emango zaio eskaintza baxuena aurkeztzen duen enpresa lizitatzailerari. Lortutako puntuak kalkulatzeko, honako formula hau erabiliko da: Gehieneko puntuak (X) bider tarifa bakoitzaren eskaintzarik txikienaren zatidura lizitatzaileraren eskaintzaren artean. Formularen emaitza negatiboa bada, 0 puntu emango dira	10 puntu
A.2) Esperientzia gehigarria: - Goi-mailako euskal kirolarekin lotutako ikus-entzunezko sorkuntzaren arloko esperientzia 5 puntu, kaudimen-irizpide gisa eskatzen den gutxieneko 3 urteko esperientzia baino jarduera osagarriko urte bakoitzeko. (25 puntu, gehienez) - Goi-mailako euskal emakume kirlariekin (emakumea eta kirola) lotutako ikus-entzunezko sorkuntzaren arloko esperientzia..... 2 puntu, kaudimen-irizpide gisa eskatzen den gutxieneko 2 urteko esperientzia baino jarduera osagarriko urte bakoitzeko. (12 puntu, gehienez) - Dibertsitate funtzionala duten goi-mailako euskal kirolariekin lotutako ikus-entzunezko sorkuntzaren arloko esperientzia (goi-mailako kirol egokitua)..... 2 puntu jarduera-urte bakoitzeko (4 puntu gehienez)	41 puntu
B) Balio-judizioari lotutako irizpideak: - Dokumental saioaren-kapituluetarako eskaintza teknikoa.....34 puntu, gehienez - Telebista-iragarkirako eskaintza teknikoa10 puntu, gehienez - Irrati-iragarkietarako eskaintza teknikoa.....5 puntu, gehienez	49 puntu

7.3.1 Balio-judizio baten araberrako kuantifikazioa duten lanetan kontuan hartuko diren elementuak:

- Aurkeztutako lanen konplexutasun orokorra.
- Eskatzen den gai zehatzarekiko lotura.

- Goi-mailako euskal kirolarekin lotutako balioen tratamendua: sakrifizioa, ahalegina, konpromisoa, motibazioa, autokontrola, malgutasuna, erantzukizuna, lankidetzatza, lidergoa eta abar.
- Emakumeen kirolarekin eta dibertsitate funtzionala duten pertsonen kirolarekin lotutako gaiak jorratzen dituen sentsibilitatea.
- Euskal iruditeria eta euskal kulturarekin zerikusia duten elementuak lantzeko gaitasuna.
- Gidoiaren egokitasuna.
- Irrati-iragarki eta iragarkietarako gidoiaren originaltasuna.
- Erabilitako ikus-entzunezko narratiba.
- Narrazioaren erritmoa.
- Planoen plastikotasuna.
- Planoak ikus-entzunezko narratiba motara egokitzea.
- Audioaren kalitatea.
- Lanak egiteko erabili diren baliabide teknikoaren kalitatea.
- Eszenografia.
- Produkzioaren konplexutasuna.
- Erabilitako grafismoaren estetika.

8. ESKAINTZAK AURKEZTEA

Lizitazio honetan parte hartzeko, proposamengileak lizitazio elektronikoaren atalean <https://www.contratacion.euskadi.eus/KPELicitacion> aurkeztu beharko du eskaintza, 2023ko MAIATZAREN 17ko 12:00ak baino lehen, hiru gutun-azal elektronikotan. Kasu honetan ez da paperezko eskaintzarik onartuko.

Proposamenak isilpekoak izango dira, eta proposamenak ireki arte izaera hori bermatuko duten bitartekoak ezarriko dira.

9. PROPOSAMENEN FORMA ETA EDUKIAK

9.1. Lizitazioan parte hartzeko proposamenak honela aurkeztu beharko dira:

“A ARTXIBOA” (ADMINISTRATIO AGIRIAK)

“B ARTXIBOA” (FORMULA BIDEZ KUANTIFIKATU EZIN DIREN ETA BALIO-JUDIZIOAREN MENDE DAUDEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA)

“C ARTXIBOA” (FORMULA BIDEZ KUANTIFIKATU DAITEZKEEN EDO BALIO-JUDIZIOEN MENDE EZ DAUDEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA)

9.2 Lizitatzailleek “A ARTXIBOA”n (ADMINISTRATIO AGIRIAK) honakoa aurkeztuko dute:

9.2.1 Jarduteko gaitasuna honela egiaztatuko da:

- a) Erantzukizunpeko adierazpena, adierazteko jarduteko gaitasun osoa duela eta ez dagoela Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 71. artikuluan aurreikusitako kontratatzeko debekuen eraginpean. Lege horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora (II. eranskina).

- b) Lizitatzaille guztiek Sektore Publikoko Lizitatzailleen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo dagokion Autonomia Erkidegoko Erregistro Ofizialean izena emanda egon beharko dute eskaintzak aurkezteko azken egunean. Inskripzio hori egiaztatzeko, inskripzio-eskabidea aurkeztu izanaren egiaztagiria aurkeztu beharko da. Azken kasu horretan, adjudikaziodun suertatuz gero, bermea gordailutzeko errekerimendua jasotzean, emandako epean. Eraketa-eskritura, eskaintza sinatzen duen pertsonaren notario-ahalordea, enpresaren edo erakundearen IFK eta enpresak zerga-egoitza duen Gizarte Segurantzarekiko eta dagokion ogasunarekiko ordainketak egunean dituela egiaztatzen duten ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.
- c) Lizitaziora aurkeztu nahi duten pertsona juridiko guztiek honako dokumentazio hau erantsi beharko dute benetako titularra identifikatzeko (kapitalak zuritzea prebenitzeko apirilaren 28ko 10/2010 Legearen 3. eta 4. artikulua):

Azken finean, pertsona juridiko baten kapitalaren edo boto-eskubideen % 25 baino gehiago zuzenean edo zeharka duten edo kontrolatzen duten pertsona fisikoaren edo fisikoen identifikazioa, edo beste bitarteko batzuen bidez pertsona juridiko baten kudeaketa zuzenean edo zeharka kontrolatzen dutenen identifikazioa. Salbuespen dira EBko edo hirugarren herrialde baliokideetako merkatu arautu batean kotizatzen duten sozietateak (III. eranskina).

- d) Lizitatzailleari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik, Sektore Publikoko Lizitatzailleen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskripzioan ez badago ordezkartza egiaztatzen duen dokumenturik: Ordezkaritza-ahalordea duen pertsonak bere ahalordeen kopia aurkeztu beharko du, notario- edo administrazio-arloan, Nortasun Agiri Nazionalarekin batera edo, hala badagokio, haren ordezkari egiten duen agiriarekin batera.

9.2.2 Espainiako enpresaburuak:

Nortasun juridikoa duten enpresak

Pertsona juridikoak diren enpresen jarduteko gaitasuna Merkataritza Erregistroan inskribatutako eratze- eta aldatze-eskrituren bidez egiaztatuko da, baldin eta betekizun hori aplikagarri zaion merkataritza-legeriaren arabera eska badaiteke. Hala ez bada, jarduteko gaitasuna egiaztatzeko, eratze-eskritura edo -agiria, aldaketa-agiria, estatutuak edo sortze-egintza erabiliko da, eta, bertan, jarduera arautzen duten arauak jasoko dira, hala badagokio, dagokion erregistro ofizialean inskribatuta. Bestela, Sektore Publikoko Lizitatzailleen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzailleen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan inskribatuta.

Atzerriko enpresaburuak

Europar Batasuneko enpresak edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetakoak:

Dena delako prestazioa emateko gaituta daudela egiaztatzen duten Europar Batasuneko enpresak aurkeztu ahal izango dira, ezarrita dauden Estatuko legediaren arabera, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 67. artikuluan ezarritakoaren arabera. Lege horren bidez, Europako Parlamentuaren eta

Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora.

Europar Batasunetik kanpoko enpresak

Europar Batasunekoak ez diren estatueta edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatueta pertsona fisikoek edo juridikoek Espainiak atzerrian duen Ekonomia eta Merkataritza Bulegoaren txostenaren bidez justifikatu beharko dute, aurkeztutako dokumentazioarekin batera, enpresaren jatorrizko estatuak Espainiako enpresei onartzen diela administrazio publikoekiko kontratazioan, funtsean antzeko moduan. Erregulazio harmonizatuko kontratueta, ez da elkarrekikotasunari buruzko txostenik egingo Munduko Merkataritza Erakundearen Kontratazio Publikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatueta enpresei dagokienez.

Era berean, obra-kontratua bada, enpresa horrek sukurtsala izan beharko du Espainian, ahalduak edo ordezkariak izendatuta, eta Merkataritza Erregistroan inskribatuta. Sektore Publikoko Kontratuari buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 18. artikuluan horretarako ezarritakoa bete behar du, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora.

Aldi baterako enpresa-elkartzea

Bi enpresa edo gehiago aldi baterako elkarte bat eratuz aurkezten badira lizitazio batera, huraosatzen duten enpresaburueta bakoitzak bere nortasuna, gaitasuna eta ordezkarieta egiaztatu beharko ditu, eta agiri pribatu batean adierazi beharko ditu hura sinatzen duten enpresaburuaren izenak eta inguruabarrak, haietako bakoitzaren parte-hartzea eta kontratua indarrean dagoen bitartean ordezkarieta osoa izan behar duen pertsona edo erakundea (Sektore Publikoko Kontratuari buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 69. artikulua, zeinaren bidez Espainiako ordenamendu juridikora ekartzen baitira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentaruak).

Pertsona fisikoak

Sektore Publikoko Lizitatzailleen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialeko inskripzioan jasota ez badago, lizitatzailleari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik:

- Identifikazio-agiria
- EJZn alta emanda dagoela egiaztatzen duen agiria

9.2.3 Kaudimena:

9.2.3.1 Ekonomikoa urteko negozio-bolumenaren bidez egiaztatuta, edo kontratuak aipatzen duen esparruko urteko negozio-bolumenaren bidez, eskura dauden azken hiru ekitaldien barruan, enpresaburuaren eratze-daten edo jardueren hasiera-daten arabera eta eskaintzak aurkezteko daten arabera, lizitazio-iragarkian edo prozeduran eta kontratuaren pleguetan parte hartzeko gonbidapenean edo, halakorik ezean, erregelamenduz ezarritakoaren arabera. Gainera, eskatutako urteko gutxieneko negozio-bolumenak ez du kontratuaren balio zenbatetsia gaindituko, behar bezala

justifikatutako kasuetan izan ezik, hala nola obren, zerbitzuen edo horniduren izaerarekin lotutako arrisku bereziekin zerikusia dutenetan.

9.2.3.2) Teknikoa

a) Hurrengo baldintzak betetzen dituen pertsona juridikoa edo fisikoa.

- Gutxienez 3 urteko esperientzia izatea goi-mailako euskal kirolarekin zerikusia duten bideoak, sustapen-bideoak, erreportajeak, dokumentalak edo ikus-entzunezko beste edozein produktu produzitzen, grabatzen, editatzen eta postproduzitzen.
- Gutxienez 2 urteko esperientzia profesionala izatea goi-mailako euskal emakume kirolariekin (kirola eta emakumea) harremana duten bideo, promozio-bideo, erreportaje, dokumental edo ikus-entzunezko beste edozein produkturen ekoizpen, grabazio, edizio eta postprodukzioan.
- Materiala artxibatzeko eta biltegitratzeko gaitasuna, segurtasun-araudiak betez.

Baldintzak egiaztatzeko, egindako lanen ziurtagiriak aurkeztu beharko dira, enpresaren legeko ordezkariak sinatuta.

9.3. Lizitatzailleak “B ARTXIBOA”n (FORMULA BIDEZ KUANTIFIKATU EZIN DIREN ETA BALIO-JUDIZIOAREN MENDE DAUDEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA) honako agiri hauek aurkeztuko dituzte:

Lizitatzailleak uste badu bere proposamen teknikoan isilpeko agiriak daudela, izaera hori duen dokumentazioa zehaztu beharko du, adierazpen sinatu eta behar bezala justifikatuaren bidez, eta izaera hori ezin izango da eskaintza osora zabaldu, hori guztia SPKLren 133. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako. Kontratazio Mahaiak arrazoituta uste badu eskaintza teknikoaren zati baten konfidentzialtasunari eusteko azaldutako arrazoiak ez daudela behar bezala justifikatuta, hala eskatzen duten gainerako lizitatzaillei erakutsi ahal izango die eskaintza hori.

Gutun-azal honetan formula bidez kuantifikatu daitezkeen esleipen-irizpideetan baloratu beharreko alderdiekin zerikusia duen edozein informazio sartuz gero, lizitatzaillea kanpo geratuko da.

- Eskaintza teknikoa

1. Enpresa lizitatzailleak memoria bat aurkeztu beharko du proiektuaren ideiarekin, tratamenduarekin eta ezaugarri nagusiekin, **gidoi-proposamen bat barne, adibide praktiko gisa. Dokumentu-kapituluetako bat nola garatuko lukeen zehaztuz.**

Adibide horrekin batera, gainera, dokumental saioa eta dagozkion teaserrak egiteko erabiliko den materialaren eta lana egingo duen giza taldearen proposamena aurkeztu beharko da (taldearen funtzioak eta antolamendua deskribatuta, baina curriculum zehatzak eta irizpide automatikoetan (esperientzia, esaterako) zerrendatutako edozein alderdiri buruzko informazioa jaso gabe).

2. Enpresa lizitatzailleak **proposamen bat aurkeztu beharko du telebistako iragarkirako adibide praktiko gisa**. Aurkezpenean ideia, tratamendua eta gidoia jaso beharko dira, iragarkia nola garatuko litzatekeen zehaztuz, baita claimak edo esloganak ere.

Adibide horrekin batera, erabiliko den materialaren eta giza taldearen proposamena aurkeztu beharko da, aurreko puntuan bezala.

3. Enpresa lizitatzailleak **proposamen bat aurkeztu beharko du irratiko iragarkietarako adibide praktiko gisa**. Aurkezpenean ideia, tratamendua eta gidoia jaso beharko dira, iragarkia nola garatuko litzatekeen zehaztuz, baita claim edo esloganak ere.

Adibide horrekin batera, erabiliko den materialaren eta giza taldearen proposamena aurkeztu beharko da, aurreko puntuan bezala.

Aurkeztutako proposamena 7.3.1 atalean zerrendatutako irizpideen arabera egokia den baloratuko da.

Proposamena euskarri digitaleko PDF bakarrean aurkeztuko da.

Aipatutako lanak edo estekak www.contratacion.euskadi.eus web orriko lizitazio honi dagokion atalean horretarako jarritako erabilera askeko erretiluen bidez bidali edo aurkeztu beharko dira.

Aipatutako lanak edo estekak ez bidaltzea edo ez aurkeztea baztertzeko arrazoia da.

9.4. "C ARTXIBOA"n (FORMULA BIDEZ KUANTIFIKATU DAITEZKEEN EDO BALIO-JUDIZIOEN MENDE EZ DAUDEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA) lizitatzailleek honako agiri hauek aurkeztuko dituzte:

9.4.1. Eskaintza ekonomikoa

I. eranskinean jasotako ereduaren arabera aurkeztuko da, eta BEZa banakatuta agertuko da.

Eskaintza balio anormalekin edo neurriz kanpokoekin kalkulatzeko, kontuan hartuko da Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 85. artikulua, eta, era berean, eskaintza anormalki baxuen kasuetarako, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 149. artikuluan aurreikusitako moduan entzungo da.

Lege horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora.

Lizitatzailerak uste badu bere proposamen teknikoan **isilpeko agiriak** daudela, izaera hori duen dokumentazioa zehaztu beharko du, adierazpen sinatu eta behar bezala justifikatuaren bidez, eta izaera hori ezin izango da eskaintza osora zabaltzeko, hori guztia SPKLren 133. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako. Kontratazio Mahaiak arrazoituta uste badu eskaintza teknikoaren zati baten konfidentzialtasunari eusteko azaldutako arrazoiak ez daudela behar bezala justifikatuta, hala eskatzen duten gainerako lizitatzailerak erakutsi ahal izango die eskaintza hori.

9.4.2. Esperientzia gehigarria

Goi-mailako euskal kirolarekin lotutako ikus-entzunezko sorkuntzaren arloko esperientzia 5 puntu, kaudimen-irizpide gisa eskatzen den gutxieneko 3 urteko esperientzia baino jarduera osagarriko urte bakoitzeko. (25 puntu, gehienez)

Goi-mailako euskal emakume kirlariekin (emakumea eta kirola) lotutako ikus-entzunezko sorkuntzaren arloko esperientzia..... 2 puntu, kaudimen-irizpide gisa eskatzen den gutxieneko 2 urteko esperientzia baino jarduera osagarriko urte bakoitzeko. (12 puntu, gehienez)

Dibertsitate funtzionala duten goi-mailako euskal kirolariekin lotutako ikus-entzunezko sorkuntzaren arloko esperientzia (goi-mailako kirol egokitua)..... 2 puntu jarduera-urte bakoitzeko (4 puntu gehienez)

Aurreko esperientzia egiaztatzeko, honako hauek aurkeztu beharko dira:

a) Goi-mailako euskal kirolarekin zerikusia duten bideoen, sustapen-bideoen, erreportajeen, dokumentalen edo ikus-entzunezko beste edozein produkturen produkzioan, grabazioan, edizioan eta postprodukzioan egindako jardun profesional espezi-fikoa- ren zerrenda. (Zehaztu zenbat urteko esperientzia).

b) Goi-mailako euskal emakumeen kirolariekin (kirola eta emakumea) harremana duten bideoen, sustapen-bideoen, erreportajeen, dokumentalen edo ikus-entzunezko beste edozein produkturen produkzioan, grabazioan, edizioan eta postprodukzioan izandako jardun profesionalaren zerrenda. (Zehaztu zenbat urteko esperientzia).

c) Dibertsitate funtzionala duten euskal kirolariekin (goi-mailako kirol egokitua) zerikusia duten bideoen, sustapen-bideoen, erreportajeen, dokumentalen edo ikus-entzunezko beste edozein produkturen produkzioan, grabazioan, edizioan eta postprodukzioan izandako jardun profesionalaren zerrenda. (Zehaztu zenbat urteko esperientzia).

9.5. Proposamenen alderdi komunak

- Proposamenak gaztelaniaz edo euskaraz idatzita egon beharko dira.

- Ez dira onartuko eskaintza kontuan hartzeko Basque Team Fundazioak funtsezkotzat jotzen duena argi eta garbi ezagutzea eragozten duten omisioak, akatsak edo zirriborroak dituzten proposamenak.
- Lizitatzaille bakoitzak proposamen bakarra aurkeztu ahal izango du. Era berean, ezin izango du proposamenik izenpetu beste batzuekin aldi baterako elkartuta, banaka edo behin baino gehiagotan agertzen bada. Arau horiek hautsiz gero, ez da lizitazioan onartuko berak izenpetutako proposamenetako bat ere.

Aurkezten diren dokumentu guztiek jatorrizkoak edo fotokopia kautotuak izan beharko dute.

Interesdunen proposamenak lizitazioa arautzen duten pleguetara eta dokumentazioetara egokitu beharko dira, eta horiek aurkezteak esan nahi du enpresaburuak baldintzarik gabe onartzen dituela klausula edo baldintza guztien edukia, inolako salbuespenik edo erreserbarik gabe; halaber, baimena ematen die Mahaiari eta kontratazio-organoari Sektore Publikoko Lizitatzailleen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean jasotako datuak kontsultatzeko.

Dokumentazioa notarioa bada, Legeak eta Notarioen Erregelamenduak legitimazioaren arloan ezartzen dituzten baldintzak beteko dira.

Fundazioak Erregistroan zigilatutako dokumentuak ere baliozkotu ahal izango dira prozesu honetarako, jatorrizkoen kopia leial gisa.

10. KONTRATAZIO MAHAIA

Hauxe da Kontratazio Mahaiaren osaera:

Presidentea: Elena Etxebarrieta, Fundazioko komunikazio arduraduna.

Kideak: Anartz Agirre, EITBko Kirola Kazetaria eta Aitor Agirre, Zinema zuzendari eta banatzailea eta Ikus-entzunezko Komunikazioko irakaslea Euskal Herriko Unibertsitatean.

Idazkaria: Maria Pérez, Fundazioko administrazio arduraduna.

11. PROPOSAMENAK IREKITZEA ETA KONTRATAZIO-MAHAIAREN JARDUKETAK

11.1. Kontratazio Mahaia, kontratazio-organoari laguntza tekniko espezializatua emateko organoa den aldetik, aurkeztutako eskaintzak baloratzeko organo eskuduna izango da, eta SPKLko 326. artikuluan eta maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuan ezarritakoaren aarbera jardungo du; besteak beste, honako eginkizun hauek betez:

- a) SPKLren 140. eta 141. artikuluetan aipatzen diren aurretiazko baldintzak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioa kalifikatzea, eta, hala badagokio, baldintza horiek betetzen direla egiaztatzen ez duten hautagaiak edo lizitatzailleak baztertzea, zuzentzeko izapidea egin ondoren.
- b) Lizitatzailleen proposamenak baloratzeta.

- c) Hala badagokio, eskaintza bat anormalki baxutzat kalifikatzeari buruzko proposamena, SPKLren 149. artikuluan aipatzen den prozedura izapidetu ondoren.
- d) Eskaintza onena aurkeztu duen lizitatzailerari kontratua adjudikatzeko proposamena egitea kontratazio-organoari, SPKLren 145. artikuluan xedatutakoaren arabera.

11.2. Eskaintzak aurkezteko epea amaituta, Kontratazio Mahaiak jasotako proposamenen zerrenda egingo du edo, hala badagokio, lizitatzailerik ez dagoela adieraziko du, eta **A ARTXIBOAN** jasotako dokumentazioa kalifikatuko du 2023ko MAIATZAREN 18an, 10:00etan, eta orri hauetako 9.2 klausulan eskatutakoa jasotzen duela egiaztatuko du, SPKLren 140. artikuluan ezarritakoaren arabera. Dokumentazio horretan zuzendu daitezkeen akatsak edo omisioak antzematen badira, interesdunei jakinaraziko zaie, gehienez HIRU EGUN NATURALEKO epean zuzendu ditzaten, Lizitazio Elektronikoaren Atariaren bidez.

A Artxiboko dokumentazioa kalifikatu eta, hala badagokio, zuzendu ondoren, Mahaiak ezarritako hautaketa-irizpideetara egokitzen diren lizitatzailerak zehaztuko ditu, eta lizitazioan onartutakoen, baztertutakoen eta baztertzeko arrazoen berariazko erabakia hartuko du.

11.3. Kontratazio Mahaiak, 2023ko MAIATZAREN 26an, 09:30etan, bitarteko elektronikoen bidez, **B ARTXIBOA** irekiko du. Bertan, balio-judizio baten arabera ebaluatu beharreko dokumentuak jasoko dira.

11.4. Balio-judizioen bidez kuantifikatu daitezkeen adjudikazio-irizpideak baloratu ondoren, Kontratazio Mahaiak **C ARTXIBOA** irekiko du 2023ko MAIATZAREN 26an, 11:30etan. Artxiboan formulak aplikatuz soilik balora daitezkeen dokumentuak jasotzen dira, eta dokumentu horiek EZ daude balio-judizioen mende.

Hauxe da irekitzeko esteka:

https://www6.euskadi.net/lizitazioa/directo_basqueteam_es.html

12. KONTRATUA ADJUDIKATZEA

Kontratazio-organoak adjudikatuko du kontratua, kontratazio-mahaiak proposatuta. Kontratazio-organoak arrazoitu egin beharko du bere erabakia, Mahaiaren proposamenarekin bat ez badator.

Kontratazio-organoak enpresa, pertsona edo erakunde baten eskaintza onuragarrientzat kalifikatzeko erabakia hartzen badu, gehienez ere ZAZPI EGUN BALIODUNEKO epean jakinaraziko zaio, bilkura publikoan plikak irekitzen direnetik hasita. Horretarako, hamar eguneko epea emango zaio, bere nortasun juridikoari buruzko guztia egiaztatzeko, baldin eta sektore publikoko kontratisten erregistroan inskribatuta ez badago, Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin ordainketak egunean baditu, eta, nolanahi ere, behin betiko bermea jarri duela egiaztatzeko, esleipenaren zenbatekoaren EHUNEKO BOST (BEZik gabe), legez aurreikusitako edozein modutan (abala, Fundazioaren kontuan gordailututa). Era berean, epe

horretan, kontratuari atxikitzeke eskainitako baliabideak badituela egiaztatu beharko du.

Dokumentazio hori jaso ondoren, kontratazio-organoak kontratua adjudikatzeko hartutako erabakia jakinaraziko zaie gainerako lizitatzaleei, idatziz, posta ziurtatu baten edo emandako posta elektroniko baten bidez.

13. KONTRATUA FORMALIZATZEA

Kontratua formalizatzeko agiria 7 egun balioduneko epean emango da, adjudikazioaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Kontratistari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik kontratua ezin bada adierazitako epean formalizatu, Fundación Basque Team Fundazioak kontratua suntsiaraztea erabaki ahal izango du, interesdunari entzuteko nahitaezko izapidea egin ondoren.

Kontratuak izaera pribatua izango du, eta jurisdikzio-ordena zibilak izango du interpretazioan edo aplikazioan sortzen diren eztabaiden berri izateko eskumena.

14. KONTRATUAREN ARDURADUNA

Kontratazio-organoak fundazioaren koordinatzailea izendatzen du kontratuaren arduradun. Koordinatzaile horri dagokio kontratuaren gauzatzea gainbegiratzea eta itundutako prestazioa behar bezala egiten dela ziurtatzeko behar diren erabakiak eta jarraibideak ematea, haiek esleitzen dizkioten ahalmenen eremuan.

15. KONTRATUA GAUZATZEA

Sinatzen den kontratua pribatua izango da, eta honako hauek arautuko dute:

- Plegu honetako klausulak.
 - Euskadiko Fundazioen Legean ezarritakoa.
 - Azaroaren 8ko 9/2017 Legean, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa, ezarritakoa.
- Lege horrek Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten du Espainiako ordenamendu juridikora.

Kontratua, kontratuari erantsitako agiriak edo Fundación Basque Team Fundazioak emandako era guztietako agiri edo arauak, hitzartutakoa gauzatzeko aplikagarriak direnak, ez ezagutzeak ez du esan nahi enpresaburua kontratua betetzeko betebeharretik salbuetsita egongo denik.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 27.2 artikuluan xedatutakoaren arabera (Lege horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora), jurisdikzio-ordena zibilak izango du kontratu pribatuen ondorioei, betetzeari eta azkentzeari buruz alderdien artean sortzen diren eztabaidak ebazteko eskumena. Jurisdikzio-ordena horrek eskumena izango du, halaber, kontratu pribatuak prestatzeari eta adjudikatzeari eragiten dioten auzigai guztiez arduratzeko.

SPKLren 62. artikuluan ezarritakoaren arabera, kontratuaren jarraipen eta gauzatze aruntaz arduratuko den unitatea pleguak onartzeko akordioan izendatuko da. Hori gorabehera, kontratazio-organoak kontratuaren arduradun bat izendatuko du, eta arduradun horrek kontratuaren gauzatzea gainbegiratuko du, erabakiak hartuko ditu eta behar diren jarraibideak emango ditu kontratua behar bezala gauzatzen dela ziurtatzeko eta enpresa adjudikazioarekin harreman arrunta izateko, hark izendatutako koordinatzailearen bitartez; besteak beste, eginkizun hauek beteko ditu:

- Kontratuaren xedea gauzatzean izandako edozein gorabehera konpontzeko beharrezkoak diren bilerak sustatzea eta deitzea.
- Fase bakoitzean kontratua gauzatzeko behar diren bitartekoak eta antolamendua egon daitezela eskatzea.
- Kontratuaren helburuak lortzeko jarraibideak ezartzea eta agindu egokiak ematea. Adjudikaziodunari edozein unetan eska diezaioke kontratua gauzatzeari eta kontratistaren betebeharrak betetzeari buruz behar duen informazioa.
- Kontratua garatu bitartean sortzen diren gorabehera guztiak izapidetzea.
- Egin beharreko prozesua edo zerbitzu-ematea ikuskatzea.

SPKLren 308.2 artikuluan ezarritakoarekin bat, kontratua amaitzen denean, ezin izango dira inola ere finkatu kontratazioaren xede diren lanak erakunde kontratatzaileko langile gisa egin dituzten langileak.

Kontratu honen klausuletako bat bera ere ezin da interpretatu, ez eta kontratua gauzatzeko egintzak ere, kontratista Fundazioari lagatzea ulertzeko moduan.

15.1. Azpikontratazioa

Kontratu honen xede diren jarduerak zuzenean gauzatu beharko ditu enpresa adjudikaziodunak. Salbuespenez, Fundación Basque Team Fundazioak baimena eman ahal izango du adjudikazioduna ez den beste enpresa batek kontratuaren xedeari lotutako langileak edo zereginak azpikontratatzeko, SPKLren 215. eta 216. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera. Onarpenak esanbidezkoa izan beharko du. Ezinbesteko baldintza izango da enpresa azpikontratatistak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak ordainduta izatea.

Eskaintzan, lizitatzailleek azpikontratatu nahi duten kontratuaren zatia adierazi beharko dute, zenbatekoa adierazita, bai eta azpikontratisten izena edo profila ere, kaudimen profesionaleko edo teknikoko baldintzen arabera definituta.

Onarpenak esanbidezkoa izan beharko du. Ezinbesteko baldintza izango da enpresa azpikontratatistak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak ordainduta izatea.

Enpresa adjudikazioduna Fundación Basque Team Fundazioaren aurrean arduratuko da azpikontrataturako enpresak arlo guztietan egiten duen jarduketaz: zerbitzuaren kalitatea, entrega-epea, amaiera, datuen tratamenduari eta informazioari buruzko betebeharrak, eta azpikontrataturako enpresak bere betebeharrak sozialak eta fiskalak betetzen ote dituen

16. GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZIAK

Kontratua gauzatzen den bitartean, Fundación Basque Team Fundazioak eskubidea izango du prestazioa zuzena dela egiaztatzeko eta plegu hauetara eta enpresa adjudikaziodunaren eskaintzara egokitzen dela egiaztatzeko.

Fundazioak kontratu honetan, pleguan eta onartutako eskaintzan zehaztutako lanen baldintzetan edozein aldaketa egiteko baimena eman ahal izango du. Ustekabeko edozein gorabehera aipatutako fundazioak jakinarazi eta, hala badagokio, onartu beharko du.

16.1. Kontratuaren adjudikaziodunak nahitaez bete beharko ditu genero-berdintasunaren arloko gauzatze-baldintza berezi hauek:

- a) Enpresa adjudikaziodunak kontuan hartu beharko du gizonen eta emakumeen arteko berdintasun-printzipioa tratuan, enplegua lortzean, lanbide-sailkapenean, sustapenean, lanaldiaren iraupenean eta antolamenduan, eta kontziliazioan, hargatik eragotzi gabe eskatzen den lanbide-kualifikazioa betetzea.
- b) Kontratua gauzatzeko behar diren dokumentu eta material guztietan hizkera ez-sexista erabiliko da, eta emakumeen irudi diskriminatzaile oro edo estereotipo sexistak saihestuko dira, berdintasunaren, presentzia orekatuaren, aniztasunaren, erantzunkidetasunaren eta rol aniztasunaren eta genero-identitatearen balioak dituen irudia sustatuz.
- c) Adjudikaziodunaren plantillarako prestakuntza-ekintzen diseinuan, edukian, hedapenean eta gauzatzean, genero-ikuspegia sartu beharko da.

16.2. Formatuei eta haien bateragarritasunari dagokienez, komunikabideek edo web euskarriek material horiek esportatzeko egiten dituzten aldaketen berri izan beharko du enpresak, komunikazioan aurrera egiteko eta berritzeko helburuarekin.

16.3. Grabatutako materiala biltegitratzeko tratatuko da, eta Fundación Basque Team Fundazioari emango zaio, eskatutako gainerako piezekin batera, adierazitako epean. Hala ere, produktoreak zerbitzari bat izan behar du, Fundazioak eskatutako ikus-entzunezko piezak edo amaierako produktuak gordetzeko.

16.4. Enpresa adjudikaziodunak bermatu beharko du datu pertsonalen segurtasunari dagokionez indarrean dagoen araudia betetzen dela, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren arabera, administrazio kontratatzaileak lagatuko datuak erabiltzean eta tratatzean.

16.5. Gauzatze-baldintza berezia da enpresa adjudikaziodunak ingurumen-kalitateari buruzko xedapenak betetzea zerbitzua emateko erabiltzen dituen ekipamenduei eta kontsumigarriei dagokienez. Hori egiaztatzeko, enpresa adjudikaziodunak erantzukizunpeko adierazpena sinatu beharko du, zerbitzua gauzatzeko erabiltzen diren ekipo eta bitartekoek ingurumen-kalitateari buruzko xedapenak betetzen dituztela edo errespetatzen dituztela adierazten duena.

16.6. Zerbitzuaren baldintzak

- Grabazio guztiak HD 1080p formatuan eta .mov edo mp4 formatuan entregatuko dira, H264 kodea dutela, 12 mbps-ko irudi-abiaduran gutxienez.
- Nahitaezkoa izango da, besteak beste, informazioaren tratamenduan jarraibide hauek aplikatzea:
 - Hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista eta inklusiboa egitea kontratua gauzatzeko behar diren dokumentazio eta material guztietan.<sup>[L]
[SEP]</sup>
 - Sexuaren arabera bereizitako datuak ematea kirolariei buruzko informazioetan.
 - Lan guztiak (grabazioa, edizioa, errotulazioa eta lokuzioa, behar izanez gero) ele bitan egingo dira, euskaraz zein gaztelaniaz, eta enpresa adjudikaziodunaren kontura izango dira egin daitezkeen itzulpenen eta azpigituluen kostuak.
 - Fundación Basque Team Fundazioak beretzat gordetzen ditu enpresa adjudikaziodunak ematen duen ikus-entzunezko material guztiaren eskubideak.
 - Dokumentu-kapituluen eta irratiko iragarki eta iragarkien gidoiak eta edukiak Basque Team Fundazioaren komunikazio-sailak adostuko ditu beti, enpresa esleipendunarekin lankidetzan.

17. KONTRATISTAREN BETEBEHARRAK ETA ERANTZUKIZUNAK

17.1. Kontratista izango da egiten dituen lanen eta egiten dituen prestazio eta zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzule, bai eta kontratua gauzatzean egindako ez-egiteek, akatsek, metodo desagokiek edo ondorio okerrekin administrazioari edo hirugarrenei eragiten dizkieten ondorioen erantzule ere.

17.2. Adjudikaziodunak zorrotz bete beharko du lan-arloan indarrean dagoen araudian xedatutakoa, kontratua gauzatzera destinatu diren langileei dagokienez, bai eremu orokorrekoak, bai sektorekoak, lizitatzen den kontratuaren jardura-sektoreari dagokionez, sektore hori naziokoa, Europar Batasuneko edo nazioartekoa izan, bereziki SPKLren V. eranskinean jasotako nazioarteko hitzarmenei dagokienez.

Era berean, adjudikaziodunak nahitaez bete beharko ditu kontratua gauzatzera bideratutako langileen soldata-baldintzak, aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboen arabera, eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legeak eta hura garatzeko arauak eskatzen dituzten gainerako aipamenak. Langile horien soldatak eta Gizarte Segurantzako kotizazioak ordainduta eduki beharko ditu.

Orobat, adjudikaziodunak zorrotz bete beharko du gizarte-segurantzari, desgaituen gizarteratzeari, gizonen eta emakumeen arteko berdintasun eraginkorrari eta laneko

arriskuen prebentzioari buruz indarrean dagoen araudian ezarritakoa, alderdi eta erregulazio guztietan. Erakunde kontratatzaileak ez du inolako erantzukizunik izango xedapen horiek eta adjudikaziodunak lan-arloan sortzen dituen gainerako xedapenak ez betetzeagatik.

17.3. Zerbitzua ematera atxikitako langileak enpresa adjudikaziodunaren mende egongo dira soil-soilik, eta hark bakarrik izango ditu enplegu-emaileari dagozkion eskubideak eta betebeharrak. Horretarako, enpresa adjudikaziodunak betebeharrak hauek hartuko ditu bere gain:

- Enpresa adjudikaziodunari baino ez dagokio pleguetan eskatzen diren titulazio- eta esperientzia-baldintzak betetzen dituzten eta kontratua gauzatzeari atxikitako lantaldeko kide izango diren langileak hautatzea. Nolanahi ere, Fundación Basque Team Fundazioak baldintza horiek betetzen direla egiaztatu ahal izango du.
- Enpresa adjudikazioduna lantaldean egonkortasuna egon dadin ahaleginduko da, eta haren osaeran aldaketak puntualak izan daitezen eta justifikatutako arrazoen ondorio izan daitezen, zerbitzuaren funtzionamendu egokia ez aldatze aldera.
- Enpresa adjudikaziodunak bere gain hartzen du kontratua gauzatzeaz arduratzen den lantaldeko langileen gain enpresari guztiei datxekien zuzendaritza-boterea modu erreal, eraginkor eta jarraituan erabiltzeko betebeharra. Bereziki, bere gain hartuko ditu honako hauek: soldatak negoziatzea eta ordaintzea, baimenak, lizentziak eta oporrak ematea, baja edo absentsia kasuetan langileak ordezkatzeko, Gizarte Segurantzaren arloko legezko betebeharrak, kotizazioak ordaintzea eta prestazioak ordaintzea barne, hala dagokionean, laneko arriskuen prebentzioaren arloko legezko betebeharrak, diziplina-ahala erabiltzea, eta enpleguaren eta enplegatzailearen arteko kontratu-harremanetik eratorritako eskubide eta betebeharrak guztiak.
- Enpresa adjudikaziodunak bereziki zainduko du kontratua gauzatzera atxikitako langileek beren jardura kontratuaren xede gisa pleguetan mugatutako jarduerari dagokionez betetzen dituzten eginkizunetan gehiegikeriarik egin gabe egiten dutela.
- Enpresa adjudikaziodunak koordinatzaile tekniko edo arduradun bat izendatu beharko du gutxienez, bere plantillan integratua, eta betebeharrak hauek izango ditu, besteak beste:
 - a) Enpresa adjudikaziodunaren solaskide gisa jardutea.
 - b) Kontratua gauzatzeko ardura duten langileen artean banatzea lana, eta kontratatutako zerbitzua emateko beharrezkoak diren aginduak eta jarraibideak ematea langile horiei.
 - c) Lantaldeko langileek esleituta dituzten eginkizunak behar bezala betetzen dituztela gainbegiratzea.
 - d) Fundación Basque Team Fundazioari jakinaraztea kontratua gauzatzeari atxikitako lantaldearen osaeran noizbehinka edo modu iraunkorrean gertatzen diren aldaketak.

17.4. Enpresa adjudikaziodunak zerbitzua behar bezala gauzatzeko behar diren baliabide materialak eta giza baliabideak aurkeztu eta mantendu beharko ditu zerbitzua ematen ari den bitartean, hala badagokio, hitzartutako epeetan, eta,

bereziki, Baldintzen Pleguetan eskatutakoak, bai eta bere eskaintzan kontratua gauzatzeko erabili edo atxikitzeko konpromisoa hartu zuenak ere.

17.5. Kontratista behartuta dago, tratamenduaren eragile den aldetik, osorik betetzera Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 EB Erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokionez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa eta 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra) indargabetzen duena, eta horrekin bat datorren gainerako araudia.

17.6.- Iruzuraren aurkako neurrien plana

Lizitatzailleek proposamenak aurkezteak berekin dakar kontratazio-organoaren Iruzuraren aurkako Neurrien Plana baldintzarik gabe eta inolako eragozpenik gabe onartzea. Plan hori kontratuaren baldintza espezifikoaren xxx klausulan jasota dago, eta haren xedapenak osorik betetzera behartzen da, Autonomia Erkidegoko, Estatuko eta Europako araudia erabat errespetatuz, iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitzeari, hautemateari eta zuzentzeari dagokionez, bai eta Europar Batasuneko erakundeek finantza-interesak babesteari buruz emandako erabakien arabera ere.

18. FUNTSEZKO KONTRATU-BETEBEHARRAK

Funtsezko kontratu-betebeharretzat hartuko dira, eta hori ez betetzeak kontratua suntsiaraztea ekar dezake, SPKLren 211.1.f) art., honako hauek:

- a) Lizitatzaillearen eskaintzan jasotako eta adjudikatzeko baloratu diren baldintzetako edozein zorrotz betetzea.
- b) Plegu honetan azpikontratazioari buruz ezarritako betebeharrak.
- c) Plegu honetan ezarritako betebeharrak, kontratua gauzatzeko giza baliabideak eta baliabide materialak atxikitzeari dagokionez.
- d) Indarrean dagoen araudian aurreikusitako segurtasun- eta osasun-neurriak zorrotz betetzea.
- e) Langileei soldatak ordaintzea eta PFEZ atxikitzea, bai eta Gizarte Segurantzari dagozkion kuotak garaiz ordaintzea ere.
- f) Klausulan datuak babesteko ezarritako betebeharrak.

Kontratuaren funtsezko betebeharretako edozein ez betetzea arau-hauste larria izango da, SPKL 71.2 c) artikuluen ondoretarako.

19. GAUZATZE AKASTUNA ETA BERANDUTZEA

Kontratuaren xede den prestazioa betetzen ez bada, gaizki betetzen bada edo gauzatzen berandutzen bada, kontratazio-organoak, kontratuaren arduradunak proposatuta eta dagozkion jarduketak izapidetu ondoren, eta interesdunari entzun ondoren, dagozkion zigorrak ezarri ahal izango dizkio kontratistari, artikuluen hauetan aurreikusitakoaren arabera: SPKLren 192. eta 193. artikuluekin bat.

19.1. Ez betetzeak:

Arinak:

- Zehaztapen Teknikoen Pleguan lan bakoitzerako ezarritako epe bat ez betetzea, proposamenak aurkezteko, zuzenketak egiteko eta azken produktua entregatzeko.
- Pleguetan jasotako baldintzaren bat ez betetzea, arau-hauste larria edo oso larria ez bada.

Larriak:

- Kontratua gauzatzeko baldintza bereziak ez betetzea.
- Kontratuaren arduradunak emandako jarraibideak ez betetzea, baldintza-pleguetan eta aurkeztutako eskaintzan jasotako betebeharren arabera.
- Zehaztapen Teknikoen Pleguan lan bakoitzerako ezarritako epea bi aldiz ez betetzea, proposamenak aurkezteko, zuzenketak egiteko eta azken produktua entregatzeko.

Oso larriak:

- Kontratuaren arduradunak emandako jarraibideak behin eta berriz ez betetzea, baldintza-pleguetan eta aurkeztutako eskaintzan jasotako betebeharren arabera.
- Lizitatzaillearen eskaintzan jasotako baldintzetako edozein ez betetzea, baldin eta baldintza horiek adjudikatzeko baloratu badira.
- Kontratuaren esleipendunari ezarritako betebeharrak ez betetzea. SPKLren 215. eta 216. art., azpikontratazioari dagokionez.
- Kontratistak, kontratua gauzatzen ari den bitartean, bertan parte hartzen ari diren langileei soldatak ez ordaintzea, edo kontratua gauzatzen ari den bitartean langile horientzat indarrean dauden hitzarmen kolektiboetan ezarritako baldintzak ez betetzea.
- Kontratuaren funtsezko edozein betebeharrak ez betetzea.
- Entregatutako produktuen kalitatea aldatzea.
- Zehaztapen Teknikoen Pleguan lan bakoitzerako ezarritakoak, proposamenak aurkezteari, zuzenketak egiteari eta azken produktua entregateari buruzkoak, hiru aldiz edo gehiagotan ez betetzea.

19.2. Zigorrak:

Adjudikaziodunak egindako ez-betetzeak honela zigortuko dira:

- Ez-betetze arinak kontratuaren adjudikazio-zenbatekoaren % 2ra arteko zehapen ekonomikoarekin zigortuko dira.
- Ez-betetze larriak kontratuaren adjudikazio-zenbatekoaren % 2tik % 5era bitarteko zehapen ekonomikoarekin zigortuko dira.
- Ez-betetze oso larriak kontratuaren adjudikazio-zenbatekoaren % 5etik % 10era bitarteko zehapen ekonomikoarekin edo kontratua suntsiaraztearekin zigortuko dira.

Ezarritako zigorren zenbatekoak kenketa bidez ordainduko dira kontratistari ordaindu beharreko ziurtagirietan edo fakturretan.

20. KONTRATUA SUNTSIARAZTEKO ARRAZOIAK

Kontratua suntsiaraztea eragin dezaketen ez-betetze oso larriak gorabehera, kontratua suntsiarazteko arrazoiak izango dira SPKLren 211. eta 313. artikuluetan zerrendatutako inguruabarrak, 213. eta 313. artikuluetan aurreikusitako ondorioekin.

Kontratua suntsiarazteko erabakia kontratazio-organoak hartuko du, ofizioz edo, hala badagokio, kontratistak eskatuta, eta, betiere, SPKLren 212. artikuluan eta APKLEOren 109. Artikuluan ezarritako prozedurari jarraituta.

21. LANEN JABETZA

Kontratua gauzatzeko egindako azterlan eta dokumentu guztiak Fundación Basque Team Fundazioaren jabetzakoak izango dira, eta hark erreproduzitu, argitaratu eta zabaltzeko ahal izango ditu, osorik edo zati batean. Lanen egile den adjudikaziodunak ezin izango du horren aurka egin.

Adjudikaziodunak ezin izango ditu kontratua gauzatzeko egindako azterlan eta dokumentuak erabili edo zabaltzeko, ez osorik, ez zati batean, ez zuzenean, ez laburbilduta, kontratazio-organoaren berariazko baimenik gabe.

Kontratuaren xedea jabetza intelektual edo industrialeko eskubide batek babestutako produktuak garatzea eta eskura jartzea bada, kontratistak fundazio kontratatzaileari lagako dio.

22. KONFIDENTZIALTASUNA

SPKLren 133.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, kontratistak errespetatu egin beharko du kontratua gauzatzean eskuratzen duen informazioaren konfidentzialtasuna, baldin eta informazio hori izaera hori eman bazaio, edo, bere izaeragatik, hala tratatu behar bada. Betebehar hori gutxienez bost urtez gordeko da, informazio hori jakiten denetik zenbatzen hasita.

Klausula honetan ezarritakoa funtsezko kontratu-betebeharra izango da.

23. ORDAINTZEKO ARAUBIDEA

Adjudikaziodun den eskaintzaren ondoriozko prezioa honela ordainduko da:

- Ehuneko berrogeia (% 40) kontratua sinatzen denean ordainduko da.
- Gainerako ehuneko hirurogeia (% 60) hilero ordainduko da, hilabetea igarotakoan, zatikako hamar ordainketa berdinen bidez, programa bakoitza eta iragarkia aurkeztu eta Basque Teameko onartu eta gero.

24. KONTRATUA SUNTSIARAZTEA

SPKLren 319. artikuluan arabera, herri-administrazioen kategoriakoak ez diren botere adjudikatzaileek egindako kontratuen ondorioak eta azkentzea zuzenbide pribatuko arauak arautuko dituzte, SPKLren 211. eta 313. artikuluetan kontratua suntsiarazteko ezarritako arrazoiei kalterik egin gabe.

25. LANEN HASIERA

Lanak kontratua sinatu eta hurrengo egunean hasiko dira ofizialki.

I. ERANSKINA

PROPOSAMEN EKONOMIKOA

.....jn. / and., adinez nagusia, bizilekua
..... eta NAN....., bere izenean edo
..... enpresa ordezkatzuz, egoitza soziala
....., eta IFZ honako lehiaketa honetan parte
hartze aldera:

"FUNDACIÓN BASQUE TEAM FUNDAZIOAREN ERREPORTAJE PROGRAMA BATEN IKUS-
ENTZUNEZKO EKOIZPENA KONTRATATZEKO"

Fundación Basque Team Fundazioak deitua, honakoa adierazten du:

Konpromisoa hartzen du lehiatzen duen prestazioa gauzatzeko, honako prezio honen
arabera eskatzen diren betekizun eta baldintzei jarraituta:

Zerga oinarria.....€

% 21eko BEZ€

Guztira€

.....-(e)n,..... -(e)ko-aren-(e)(a)n

Sin.:

II. ERANSKINA

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

..... jn. / and., NAN,-ren izenean, IFK, egoitza soziala, den aldetik, Fundación Basque Team Fundazioak deitutako adjudikazio-prozeduran interesa duela.

Honen bidez, ERANTZUKIZUNEZ DEKLARATZEN DUT, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 140.1 c) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako. Lege horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora:

- Nik ordezkatzan dudanak sektore publikoarekin kontratatzeke debekurik ez duela, SPKLren 71.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.
- Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean ditudala. Nolanahi ere, kontratua formalizatu aurretik betekizun hori egiaztatzen duen justifikazioa aurkezteko konpromisoa hartuko dut, kontratazioa arautzen duen Baldintza Orokorren Pleguan aurreikusitakoaren arabera, baldin eta adjudikaziodun banaiz.
- Adjudikazioduna izanez gero, zerbitzua gauzatzeko erabiltzen diren ekipamenduei eta baliabideei dagokienez ingurumen-kalitateari buruzko xedapenak beteko ditudala.

.....-(e)n,..... -(e)ko-aren-(e)(a)n

Sin.:

III. ERANSKINA

Pertsona juridikoen erantzukizunpeko adierazpena

(.....), IFZ(.....),(.....)ko (ahalordedun, zuzendari orokorra, administratzaile bakarra...) den aldetik, IFZ (.....), eta jakinarazpenak bidaltzeko helbidea (.....), zk. (.....), (PK.....), (Herria.....), kapitalen zuritzea eta terrorismoaren finantzaketa prebenitzeko indarrean dagoen araudian aurreikusitakoa betetzeko, honakoa

ZIURTATZEN DU

1 - 10/2010 Legearen Erregelamenduaren 4. artikuluan ezarritako identifikazio formalaren betebeharra betetzeko aurkeztutako dokumentazioan jasotako datuak egiazkoak direla, eta emandako informazio guztia indarrean dagoela:

BAI EZ

2 - Ordezkatzen duen sozietatearen jabetza-egitura edo kontrola honako hau dela:

	Ez dago % 25etik gorako partaidetza duen bazkiderik/akziodunik.
	Hona hemen % 25etik gorako partaidetza duten bazkideen/akziodunen zerrenda:

BAZKIDEAREN AKZIODUNAREN OSOA	EDO IZEN	PF / PJ	IDENTIFIKAZIOA	NAZIONALITATEA	PARTAIDETZA (%)

PF: pertsona fisikoa / PJ: pertsona juridikoa

3 – Azken finean ordezkatzeko duen pertsona juridikoaren kapitalaren edo boto-eskubideen % 25 baino gehiago zuzenean edo zeharka duten edo kontrolatzen duten pertsona fisikoak, edo akordioen edo estatutu-xedapenen bidez edo beste bitarteko batzuen bidez pertsona juridikoaren kudeaketa zuzenean edo zeharka kontrolatzen dutenak hauek dira:

	Azken finean, ez dago ordezkatzeko duen merkataritza-sozietateak zuzenean edo zeharka kapitalaren edo boto-eskubideen % 25 baino gehiago duen edo kontrolatzen duen pertsona fisikorik edo pertsonarik, edo beste bitarteko batzuen bidez merkataritza-sozietate horren kudeaketaren kontrol zuzena edo zeharkakoa egiten duenik.
--	---

Hurrengoak:

BENETAKO TITULARRAREN IZEN OSOA	IDENTIFIKAZIOA	NAZIONALITATEA	KONTROLA (%)

4 - Administrazioaile, Patronatuko kide (fundazioetarako) edo Zuzendaritza Batzordeko kide (elkarteetarako) gisa jarduten dutenak:

ADMINISTRATZAILEAREN IZENA	PF / PJ	IDENTIFIKAZIOA	NAZIONALITATEA

Lehen aipatutako administrazioaileetakoren bat, patronatukideren bat edo zuzendaritza-batzordeko kideren bat pertsona juridikoa bada, adierazi administrazioaileak pertsona juridiko izendatutako pertsona fisikoaren izena:

SOZIALITATEA	ADMINISTRATZAILEAREN IZENA	IDENTIFIKAZIOA	NAZIONALITATEA

Eta horrela jasota gera dadin, eta eskatutako ondorioetarako, honako hau ematen da.

.....-(e)n,..... -(e)ko-aren-(e)(a)n

IV. ERANSKINA

Interes gatazkarik ezaren erantzukizunpeko adierazpena (IGEA)

¹..... jaunak/andreak, bere izenean edo (operadore ekonomikoa) ordezkatzuz (IFZ:), zenbakia duen espedienteari dagokionez, eta goian aipatutako kontratazio-prozeduraren inpartzialtasuna bermatze aldera:

Lehenengoa. Adierazten dut, administrazio publikoak lizitatutako kontratuei dagokienez, ezagutzen ditudala honako hauek:

1.– Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduaren (EBren finantza-erregelamendua) 61.3 artikulua («interes-gatazka») ezartzen du “interes-gatazka egongo dela funtzioen jardun inpartzial eta objektiboa arriskuan jartzen denean familia-arrazoiengatik, arrazoi afektiboengatik, kidesun politiko edo nazionalagatik, interes ekonomikoagatik edo interes pertsonaleko zuzeneko edo zeharkako edozein arrazoiengatik”.

2.– Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 64. artikulua («Ustelkeriaren aurkako borroka eta interes-gatazken prebentzioa») helburua da lehiaren distortsio oro saihestea, prozedura gardena dela eta hautagai eta lizitatzailerik guztientzat tratua berdina dela bermatzeko.

3.– Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikulua («Abstenitzea») ezartzen du prozeduran esku hartzetik abstenituko direla “administrazioetako agintari edo langileak, hurrengo zenbakian aipaturiko egoeretakoren batean daudenean”, zehazki, egoera hauek:

a) Interes pertsonala izatea aztertuko den gaian edo gai horretako ebazpenak eragin diezaiokeen beste batean; baltzu edo erakunde interesdunen bateko administratzaile izatea, edo interesdunen batekin ebatzi gabeko auziren bat izatea.

b) Ezkontza-lotura edo antzeko egitatezko egoera izatea, eta ahaidetasuna izatea, laugarren gradurainoko odolkidetasunezkoa edo bigarren gradurainoko ezkontza-ahaidetasunezkoa, interesdunetako edozeinekin, entitate edo sozietate interesdunen bateko administratzaileekin, bai eta prozeduran esku hartzen duten aholkulari, legezko ordezkari edo mandatariekin ere, edo haien bulego berekoa izatea edo haiekin elkartuta egotea aholkularitza, ordezkaritza edo mandataritzarako.

c) Aurreko idatz-zatian aipaturiko lagunetakoren batekin adiskidetasun mina edo ikusiezin nabarmena izatea.

d) Dagokion prozeduran aditu edo lekuko gisa parte hartua izatea.

¹ Operadore ekonomiko bik edo gehiagok batera aurkezten badute eskaintza, eta konpromisoa adierazten badute adjudikaziodun izanez gero ABEEa formalki eratzeko, operadore guztien ordezkariak sinatu beharko dute deklarazio hau.

e) Gaian zuzeneko interesa duen pertsona fisiko edo juridikoren batekin zerbitzu-harreman izatea edo pertsona horri, azken bi urteetan, zerbitzu profesionalak eskaini izana, edozein motatakoak eta edozein baldintza eta tokitan».

Bigarrena. Adierazten dut:

1. Ez nagoela/gaudela EBren Finantza Erregelamenduaren 61.3 artikuluan interes-gatazkatzat sailkatzen diren egoeretako ezeinetan, eta ez nagoela/gaudela Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23.2 artikuluan ezartzen diren eta lizitazio-prozeduran eragina izan dezaketen abstenitzeko arrazoietako ezeinen mende.

2. Konpromisoa hartzen dudala/dugula kontratazio-organismoari jakinarazteko, luzamendurik gabe, egoera hori sortzen duen edo sor dezakeen edozein interes-gatazka edo abstenitzeko arrazoi.

3. Konfidentzialtasunez tratatuko ditudala prozedura horien esparruan garatzen diren gaiak eta dokumentazioa, eta ez dudala desegoki erabiliko prozedura horietan parte hartzeagatik ematen zaidan informazioa.

4. Ezagutzen dut interes-gatazkarik ez dagoela dioen adierazpen bat faltsua dela frogatzen bada, aplikatzekoa den araudiak ezartzen dituen diziplina-ondorioei, ondorio administratiboei edo judizialei aurre egin beharko diedala.

.....(e)n, 20...(e)ko(a)ren(e)(a)n.

Sinadura:

Datu pertsonalen babesari buruzko oinarritzko informazioa.

Behar bezala betetzeko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (EB) 2016/679 Erregelamendua, Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra), eta datu-babesaren alorrean indarrean dagoen gainerako araudia, jakinarazten da datu pertsonalak tratamendu-jarduera honen barruan sartuko direla: «**Kontratazioaren kudeaketa**»:

1. **Arduraduna:** Dagokion kontratazio-organismoa.
2. **Helburua:** kontratazio publikoaren prozeduraren kudeaketa, fase guztietan, betearazpena, aldaketak, luzapenak, epe- edo prezio-aldaketak, azken zenbatekoa eta iraungipena barne hartuta, baita adjudikazio-prozeduran atzera egiteko erabakiak, kontratua ez adjudikatzeko edo ez egiteko erabakiak eta kontratistari egotzi ahal zaizkion eta kontratua suntsiaraztea eragin duten gorabeherak ere.
3. **Legitimazioa:** tratamendua beharrezkoa da interesduna parte den kontratu bat betearazteko eta tratamenduaren organo arduradunari aplikagarria zaion lege-betebeharra betetzeko.
4. **Hartzaileak:** Interes legitimoa dutenei eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiari eman ahal izango zaizkie datu pertsonalak.
5. **Eskubideak:** Eskubidea duzu zure datuetarako irispidea izateko, datu horiek zuzentzeko eta ezabatzeko edo datuen tratamendua mugatu edo haren aurka egiteko.

INFORMAZIO ZABALAGOA VII.1 ERANSKINEAN: «DATU PERTSONALEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIO GEHIGARRIA

V. ERANSKINA

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planean (SEEP) ezarritako zeharkako printzipioak betetzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpena

Nik, jaunak/andreak, nire izenean edo [kontratista] kontratistaren ordezkartzan (IFZ:) [kontratistarena], kontratista naizen aldetik,

Espediente-zenbakia:..... duen kontratuaren esleipen-prozedurari dagokionez.

Lehenengoa. Ordezkatzen dudan entitateak arau juridiko, etiko eta moralaren betebeharrakiko estandar zorrotzekin konpromisoa hartzen du, iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitzeko eta detektatzeko behar diren neurriak hartuz, eta, hala badagokio, ikusitako ez-betetzeak dagokien agintariei jakinaraziz.

Bigarrena. SEEP edukiari erantzunda, ordezkatzen dudan entitateak ekonomia zirkularraren printzipioak errespetatzera eta ingurumean suertatu daitezkeen efektu negatiboak sahiestera («do no significant harm» printzipioaren ingelesezko siglak: «DNSH») konprometitzen da, Plan horren barruan egiten diren jarduketetan.

Hirugarrena. Halaber, ordezkatzen dudan entitateak adierazten du ez duela finantzaketa bikoitzik eta, duen informazioaren arabera, ez dagoela bateraezintasunarriskurik Estatuko laguntza-araubidea dela eta

.....(e)n, 20...(e)ko(a)ren(e)(a)n.

Sinadura:

Datu pertsonalen babesari buruzko oinarrizko informazioa.

Behar bezala betetzeko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (EB) 2016/679 Erregelamendua, Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituena (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra), eta datu-babesaren alorrean indarrean dagoen gainerako araudia, jakinarazten da datu pertsonalak tratamendu-jarduera honen barruan sartuko direla: «**Kontratazioaren kudeaketa**»:

1. **Arduraduna:** Dagokion kontratazio-organoa.
2. **Helburua:** kontratazio publikoaren prozeduraren kudeaketa, fase guztietan, betearazpena, aldaketak, luzapenak, epe- edo prezio-aldaketak, azken zenbatekoa eta iraungipena barne hartuta, baita adjudikazio-prozeduran atzera egiteko erabakiak, kontratua ez adjudikatzeko edo ez egiteko erabakiak eta kontratistari egotzi ahal zaizkion eta kontratua suntsiaraztea eragin duten gorabeherak ere.
3. **Legitimazioa:** tratamendua beharrezkoa da interesduna parte den kontratu bat betearazteko eta tratamenduaren organo arduradunari aplikagarria zaion lege-betebeharra betetzeko.
4. **Hartzaileak:** Interes legitimoa dutenei eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiari eman ahal izango zaizkie datu pertsonalak.
5. **Eskubideak:** Eskubidea duzu zure datuetarako irispidea izateko, datu horiek zuzentzeko eta ezabatzeke edo datuen tratamendua mugatu edo haren aurka egiteko.

INFORMAZIO ZABALAGOA VII.1 ERANSKINEAN: «DATU PERTSONALEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIO GEHIGARRIA